## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Departamentua:** 03 - ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
**Atala:** 0310 - 2030 Agendako, Berrikuntzako eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusia
**Programa:** 100 - Agenda, Berrikuntza eta Ebaluazioa
**Funtzionala:** 231 - Gizarte ekintza

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Saileko pertsonak, hirugarren sektoreko eragileak, zerbitzuak ematen dituzten enpresak eta erakundeak, Gipuzkoako gizartea, oro har.

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 10.918,02 | ( % 0,07 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 10.918,02 | ( % 0,11 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Ek.HO.12.2. Gipuzkoan txirotasunaren feminizazioa murrizten jarraitzea.** | **Ek.12.2.2. Elkar-rekin Lanean foru programaren esparruan, gizarte bazterketan bizi diren edo egoera horretan egoteko arriskua duten emakumeak gizarteratzeko bideak lantzea, kontuan izanik aurre egin beharreko generoko egiturazko desberdintasunak.** | **( % 10,00 )** | |
| | **Zainketetan Berdintasuna Koordinatzeko Batzordea. Zainketen eta Gizarte Politiken 2030 Agendaren hedapenean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna koordinatzeko batzorde bat diseinatzea eta kudeatzea.** | **( % 90,00 )** | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Departamentua:** 03 - ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
**Atala:** 0320 - Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza Nagusia
**Programa:** 200 - Desgaituen laguntza
**Funtzionala:** 231 - Gizarte ekintza

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Behar bereziak dituzten pertsonak (desgaituak, genero indarkeriaren biktimak, etab )

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Lehenik eta behin, adierazi behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak mendekotasuna duten pertsonei eskaintzen dizkien baliabideak, logikoa denez, mendetasun-maila baloratzeko eskaeraren bidez eskuratzen direla. Horri dagokionez, 65 urtetik beherako pertsonen taldean, oro har, emakumeek gizonek baino beranduago lortzen dute balorazioa.
Zehazki, balorazioa duten gizonen eta balorazioa duten emakumeen arteko proportzio erlatiboa erreferentziatzat hartuta, ikusten da gizonen ehunekoa emakumeena baino %22 handiagoa dela, eta alde hori 3-6 urteko adin-tartean hasten dela (%52), gaztaroan mantentzen dela (% 47 12-17 adin-tartean), eta pixkanaka % 22ra jaisten ari dela 60-64 adin-tartean.
Profil hori bera ikusten da, are gehiago, mendekotasun-kalifikazioa lortzen duten pertsonen proportzioan. 3-6 urteko tartean mendeko haurren artean %143 mutil gehiago daude, 7-11 tartean %116 gehiago, eta gero desoreka leuntzen ari da, 60-64 tartean %24ra jaitsi arte.
Baliabideak eskuratzeari dagokionez:
a) Biztanleria osoa kontuan hartzen badugu (ez bakarrik mendekoa), gizonen balorazio-tasa handiagoa izateak estaldura handiagoa dakar; zehazki, %43 handiagoa. Alde hori gazteen adin-tarteetan hasten da (17 urtera arte), %113era iristen baita; % 38ra jaisten da 18-59 adin-tartean (ugariena), eta %24ra 60-64 adin-tartean.
b) Mendeko biztanleria soilik kontuan hartzen badugu, oro har, bi sexuen estaldura-tasetan oreka dagoela ikusten da, nahiz eta zerbitzu eta prestazio jakin batzuetan gizonen gehiegizko ordezkaritza egon. Zehazki: gaixotasun mentala dutenentzako ostatuetan eta eguneko zentroetan (%54 gehiago eta %44 gehiago, hurrenez hurren), eta Arreta goiztiarrean (%43 gehiago).
Iturria: GFA 2023

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 140.008,73 | ( % 0,18 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 140.008,73 | ( % 0,18 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.** | **Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrita, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.** | **( % 48,50 )** | |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundean sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonei zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea. | Go.5.1.3. GFAren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea. | ( % 4,90 ) | |
| Ek.HO.13.2. Genero ikuspegia jasotzea GFAk sustatzen duen mendekotasunaren eta desgaitasunaren arretako ereduan. | Ek.13.2.2. Foru baliabide eta zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresa esleipendunen langileek berdintasun alorrean oinarrizko prestakuntza edo prestakuntza espezializatua (arduren araberakoa) izateko neurriak sustatzea. | ( % 46,60 ) | |
| | Kontratuetan genero baldintzen jarraipena ahalbidetzeko sistema ezartzea | ( % 100,00 ) | |
| | Emakumeen premiei hobeto erantzuten dieten zerbitzuak neurri handiagoan indartzea | ( % 100,00 ) | |
| I.HO.14.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari nola heltzen zaion hobeto ezagutzea, indarkeria egoera horiek berariaz erantzuten ez dituzten foru zerbitzu eta baliabideetatik." | V.14.2.2. Pertsona adintsuentzako eta/edo desgaitasunak dauzkaten pertsonentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan indarkeria matxista prebenitzeko eta tratatzeko protokoloa lantzea eta ezagutaraztea. | ( % 100,00 ) | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Departamentua:** 03 - ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
**Atala:** 0320 - Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza Nagusia
**Programa:** 210 - Adinekoen laguntza
**Funtzionala:** 231 - Gizarte ekintza

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Adineko pertsonak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Lehenik eta behin, adierazi behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak mendekotasuna duten pertsonei eskaintzen dizkien baliabideak, logikoa denez, mendetasun-maila baloratzeko eskaeraren bidez eskuratzen direla. Horri dagokionez, 65 urtetik gorakoen taldean (adin horretatik beherakoen taldean ez bezala), emakumeen sarbidea gizonena baino azkarragoa da, 65-69 tartean izan ezik, tarte horretan oraindik gizonen aldeko desoreka txikia ikusten baita ( % 12,1).
Mendeko pertsonen gaineko estaldura-tasetan ere oreka ikusten da bi sexuen artean, emakumeen aldeko abantaila txiki batekin (estaldura %87,3koa da, eta gizonena, berriz, %84,4koa).
Baliabideak eskuratzeari dagokionez, oro har, oreka ikusten da mendeko pertsonen estaldura-tasetan, nahiz eta zerbitzu eta prestazio jakin batzuetan gizonen gehiegizko ordezkaritza egon. Zehazki: egoitza-unitate soziosanitarioak (%113), gaitasun juridikorako laguntza-neurriak (%90), laguntza teknikoak (%37).

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 13.245,02 | ( % 0,01 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 13.245,02 | ( % 0,01 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundean sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonei zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.** | **Go.5.1.3. GFAren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.** | **( % 100,00 )** | |
| **Ek.HO.13.1. Zaintza lanak aitortzea eta haiei balioa ematea ezinbestekoak direlako bizitzaren jasangarritasunari begira.** | **Ek.13.1.3. GFAko laguntza baliabideetako zaintzaileen beharrizan espezifikoei erantzungo dien autozaintzako programa bat diseinatzea, aintzat harturik erreferentziazko beste esperientzia batzuk.** | **( % 100,00 )** | |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| Ek.HO.13.2. Genero ikuspegia jasotzea GFAk sustatzen duen mendekotasunaren eta desgaitasunaren arretako ereduan. | Ek.13.2.2. Foru baliabide eta zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresa esleipendunen langileek berdintasun alorrean oinarrizko prestakuntza edo prestakuntza espezializatua (arduren araberakoa) izateko neurriak sustatzea. | ( % 50,00 ) | |
| | Kontratuetan genero baldintzen jarraipena ahalbidetzeko sistema ezartzea | ( % 100,00 ) | |
| I.HO.14.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari nola heltzen zaion hobeto ezagutzea, indarkeria egoera horiek berariaz erantzuten ez dituzten foru zerbitzu eta baliabideetatik." | V.14.2.2. Pertsona adintsuentzako eta/edo desgaitasunak dauzkaten pertsonentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan indarkeria matxista prebenitzeko eta tratatzeko protokoloa lantzea eta ezagutaraztea. | ( % 100,00 ) | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Departamentua:** 03 - ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
**Atala:** 0330 - Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuz Nagusia
**Programa:** 300 - Prestazio ekonomikoak, planifikazioa eta itunak
**Funtzionala:** 920 - Administrazio orokorra

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Ertaina

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Familia-ingurunean ematen diren mendeko pertsonen zaintza ez-profesionalak batez ere emakumeek egiten dituzte. Familia Inguruneko Zaintzarako Prestazio Ekonomikoan (FIZPE) 10 zaintzailetik 7 emakumeak dira, zehatzago esanda % 69 emakumezkoak eta % 31 gizonezkoak. Zaintzailea ezkontidea ez den kasuetan, seme-alabak, anai-arrebak edo gurasoak badira, arrakala handitu egiten da, % 73 emakumezkoa eta % 27 gizonezkoa izanik. Profesional bat kontratatu duten (profesionalen % 96 emakumezkoak dira) eta Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE) jasotzen duten familien kasuan arreta profesionalaren ordutegitik kanpoko senideen zainketak nola banatzen diren ez dakigu.

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 15.208,79 | ( % 0,02 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 15.208,79 | ( % 0,02 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Ek.HO.13.1. Zaintza lanak aitortzea eta haiei balioa ematea ezinbestekoak direlako bizitzaren jasangarritasunari begira.** | **Ek.13.1.4. GFAk dauzkan tresnetan mendekotasunak dauzkaten pertsonen zaintza duinak bermatzeko eta zaintzaileentzat kalitatezko lan baldintzak bermatzeko tresnak sartzea.** | **( % 50,00 )** | |
| **Ek.HO.13.2. Genero ikuspegia jasotzea GFAk sustatzen duen mendekotasunaren eta desgaitasunaren arretako ereduan.** | **Ek.13.2.1. Genero berdintasunerako politikek arreta eredu berrian (Gizarte Politiken Proiektu Gidari Estrategikoa, 2020-2023) duten eraginaren ebaluazioa egitea.** | **( % 50,00 )** | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Departamentua:** 03 - ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
**Atala:** 0330 - Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuz Nagusia
**Programa:** 310 - Gizarte zerbitzuen zentroetako inbertsioen plana
**Funtzionala:** 232 - Gizarte sustapena

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Gizarte Zerbitzuetako zentroak egokitzeko finantzaketa.

**Kuantifikazioa:** 479.359,99 ( % 0,45 )
**Ordainketa kredituak:** 160.681,25 ( % 0,43 )
**Datozen urteetako gastuak:** 318.678,73 ( % 0,47 )

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.** | **Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrita, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.** | **( % 100,00 )** | |
| **Ek.HO.13.1. Zaintza lanak aitortzea eta haiei balioa ematea ezinbestekoak direlako bizitzaren jasangarritasunari begira.** | **Ek.13.1.4. GFAk dauzkan tresnetan mendekotasunak dauzkaten pertsonen zaintza duinak bermatzeko eta zaintzaileentzat kalitatezko lan baldintzak bermatzeko tresnak sartzea.** | **( % 100,00 )** | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Departamentua:** 03 - ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
**Atala:** 0340 - Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza Nagusia
**Programa:** 400 - Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arreta
**Funtzionala:** 232 - Gizarte sustapena

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Behar bereziak dituzten pertsonak (desgaituak, genero indarkeriaren biktimak, etab )

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Etxeko ingurunea segurua eta egokia izatea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Foru Planak ezartzen duen bezala, jarraipena eman nahi da Gipuzkoako Foru Aldundiak historikoki egin duen lan ibilbide handiari emakumeak eta neskak indarkeria matxistarik gabeko bizitzak izan ditzaten ahalbidetzeko. Lan hori, betiere beste erakundeekin elkarlanean bideratu dena, azkartu egin da Covid-19ak sorrarazitako egoeran zehar, eta kontuan hartu da indarkeria mota horri aurre egiten dieten emakume eta neska askoren zaurgarritasun handiagoa isolamenduaren eta bakardadearen ondorioz bizi duten eta bizi izan duten egoeran.

Kontuan hartuta artatutako emakume askoren problematikan hautematen den intersekzionalitatea, helburu horiek kontuan hartzen dira sareko zerbitzu guztiak kudeatzean.

Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Zerbitzuak emakumeen ahalduntzea eta autonomia sustatzen du, horrela, emakumeen segurtasuna bermatzeko.

**Kuantifikazioa:** 6.117.744,06 ( % 13,64 )
**Ordainketa kredituak:** 6.117.744,06 ( % 13,64 )
**Datozen urteetako gastuak:** 0,00 ( % 0,00 )

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundean sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonei zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.** | **Go.5.1.3. GFAren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.** | **( % 100,00 )** | |
| **Ek.HO.12.2. Gipuzkoan txirotasunaren feminizazioa murrizten jarraitzea.** | **Ek.12.2.2. Elkar-rekin Lanean foru programaren esparruan, gizarte bazterketan bizi diren edo egoera horretan egoteko arriskua duten emakumeak gizarteratzeko bideak lantzea, kontuan izanik aurre egin beharreko generoko egiturazko desberdintasunak.** | **( % 100,00 )** | |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **I.HO.14.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko ikerketa eta informazioa biltzeko sistemak eta datuak komunikatzeko eta ezagutarazteko bideak hobetzea.** | **I.14.1.2. GFAk arreta emandako emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuei buruzko informazio homogeneoa biltzeko sistema diseinatzea.** | **( % 34,00 )** | |
| | **I.14.1.3. Foru zerbitzuek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei emandako arretaren gaineko urteko jarraipen sistema hobetzea.** | **( % 33,00 )** | |
| | **I.14.1.4. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari emandako arretaren emaitzak sistematikoki jasotzea eta aldizka ezagutaraztea GFAren programa, baliabide eta zerbitzuetatik.** | **( % 33,00 )** | |
| **I.HO.15.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko foru zerbitzuen irismena eta kalitatea handitzea.** | **I.15.1.1. Indarkeria matxistaren emakume biktimentzat arreta psikosozial eta soziojuridikoko zerbitzua diseinatzea eta abian jartzea.** | **( % 30,00 )** | |
| | **I.15.1.2. 2019an egindako ebaluazioaren emaitzak aintzat harturik, emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta espezifikoa emateko baliabideak eta zerbitzuak progresiboki egokitzea.** | **( % 100,00 )** | |
| **I.HO.16.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan foru eta toki politikak lerrokatzea.** | **I.16.1.1. GFAn indarkeria matxistaren arloan ari diren departamentuen arteko koordinazio guneak indartzea.** | **( % 20,00 )** | |
| | **I.16.1.2. Lurralde mailako koordinazio gune bat sortzea GFAren eta emakumeen aurkako indarkeria matxista jasaten duten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen Arteko II. Akordioan parte hartu zuten udalez gaindiko arreta zerbitzuen artean.** | **( % 50,00 )** | |
| | **I.16.1.3. GFAk eta toki erakundeek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean jarduteko moduak koordinatzeko partekatzen dituzten guneak sendotzea.** | **( % 30,00 )** | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

| | |
|---|---|
| **Departamentua:** | 03 - ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA |
| **Atala:** | 0340 - Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza Nagusia |
| **Programa:** | 410 - Haur eta nerabeen babesa |
| **Funtzionala:** | 231 - Gizarte ekintza |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Haurrak eta nerabeak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegitik, gure jardunak ezin du genero-azterketa alde batera utzi, ulertzeko genero-rolen eraikuntza kulturalak eta sozialak nola eragiten duen haien bizitzetan, bereziki ahulenetan, eta haurrak eta nerabeak bizitzako une guztietan babesteko estrategia espezifikoak lantzeko, aukera-berdintasuna eta ahalduntzea sustatuz. Helburua da aitortzea genero-rolek arrisku eta ahultasun desberdinak eragiten dizkietela haurrei, eta haien premiak eta erabakiak desberdinak izan daitezkeela, haien trebetasunak, ezagutzak eta erantzuteko estrategiak bezalaxe.

Aintzatespen horrek, programa honen bidez, sozializazio-ereduak zaintzera garamatza, diskriminaziorik eta indarkeriarik gabeko ahalduntze- eta garapen pertsonaleko prozesuak ahalbidetu eta indartuko dituztenak. Programa, baliabide eta profesional guztiek programazio/esku-hartze/ebaluazio ziklo osoan genero-inplikazioak kontuan hartzea eskatzen digu, adingabeen protagonismoa bermatuz. Horregatik, ezinbestekoa da begirada genero-desberdintasunetan eta -estereotipoetan jartzea, genero-desberdintasun errepikari mota guztien detekzio goiztiarrean sakonduz, gure esku-hartzearen bidez ekitatearen, justiziaren eta genero-berdintasunaren ikuspegitik inpaktu mesedegarria lortzeko.

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 10.039.519,09 | ( % 15,52 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 10.039.519,09 | ( % 15,52 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Ek.HO.10.2. Bizitzaren esparru guztietan emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien rol eta estereotipoen hausturan aurrera egitea.** | **Ek.10.2.1.Haur eta gazteentzako foru zerbitzuetan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko eduki eta jarduerak sartzea.** | **( % 30,00 )** | |
| **Ea.HO.8.2 GFAren genero zeharkakotasunaren estrategiaren bidez, emakumeen ahalduntzea sustatzea.** | **Ea.8.2.4. Neska nerabeen ahalduntzea sustatzea GFAk sustatutako haur, nerabe eta gazteentzako programen eta guneen esparruan.** | **( % 33,00 )** | |
| **I.HO.14.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari nola heltzen zaion hobeto ezagutzea, indarkeria egoera horiek berariaz erantzuten ez dituzten foru zerbitzu eta baliabideetatik."** | **V.14.2.3. Haurtzaroan eta nerabezaroan sexu-indarkeria matxista prebenitzeko eta detektatzeko tresnak sortzea, bai espazio komunetan, bai espazio espezifikoetan, hala nola kirol- eta aisialdi-espazioetan.** | **( % 30,00 )** | |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| I.HO.14.3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arbuio soziala handitzea, indarkeria mota hori eragiten duten generoko desberdintasunak daudela ulertuta. | I.14.3.2. Egindako kalteari erantzun publikoa emateko eta erreparazio kolektiboa gauzatzeko eskubidea sustatzea, indarkeria matxista jasaten duten emakumeak berriz ere biktima izan daitezen saihesturik. | ( % 40,00 ) | |
| I.HO.15.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko eredua beste foru baliabideetara, espezifikoki indarkeriaren arlokoak ez direnetara, zabaltzea. | I.15.2.1. Indarkeria matxistaren arloko foru lan guneak egokitzea, gai horri erantzuteko zerbitzu guztiak lan gune horietan bil daitezen, eta horrenbestez, biktimekiko arreta modu integralean eta koordinatuan bideratu ahal izan dadin. | ( % 50,00 ) | |
| | I.15.2.2. Haurrei eta nerabeei zuzendutako zerbitzuetatik, emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arreta hobetzeko lan plan bat zehaztea eta abian jartzea. | ( % 50,00 ) | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Departamentua:** 03 - ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
**Atala:** 0350 - Erakunde Publikoen Zuzendaritza Nagusia
**Programa:** 500 - Foru Erakunde Publikoen Kudeaketa
**Funtzionala:** 231 - Gizarte ekintza

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Ertaina

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Programa honen helburua da, bereziki, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako zentroen kudeaketaren efizientzia hobetzea

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 890,00 | ( % 0,00 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 890,00 | ( % 0,00 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.** | **Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrita, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.** | **( % 100,00 )** | |